

# HABE LIBURUTEGIA

EUSKARA: IRAKURGAI MAILAKATUAK / 2013

HABE Liburutegiko gidak • 4



Egilea: HABE Liburutegia

Diseinua: ZIRRIMARRA estudio grafikoa

Argitaratzailea: HABE, 2013

ISBN: 978-84-96769-03-8

## Irakurgai mailakatuak

HABE Liburutegiko erabiltzaile askoren eskariari erantzuteko sortu da *Irakurgai mailakatuak* izena duen gida hau. Izan ere, liburu bat ala beste hartzeko garaian, euskara-mailaren arabera aukeraketa egin nahi izaten baitu jende askok.

Horregatik, eta jakinda euskaltegietako ikasleek ere euskara-mailari erreparatzen diotela, zentro batzuetara jo dugu informazio eske. Hala, oso lagungarri gertatu zaigu eta lan hau egiteko abiapuntu izan ditugu Legazpiko Udal Euskaltegiak edota Maizpide barnetegiak, besteak beste, gure esku jarri dituzten liburu-zerrendak. Horiek egokitu, ordenatu eta osatu egin ditugu, beste hainbat erreferentzia erantsiz. Elkarrekin jardun dugu HABE Liburutegiko eta Materialgintza ataleko lankideak; halaber, lagungarria izan da Curriculum Garapenaren atalaren ekarpena.

Aukeraketa honetan, hala ere, ez daude HABE Liburutegiko irakurgai guztiak, ezta gutxiago ere, baina bai ikasle nahiz irakurleen artean estimaziorik handiena izan dutenak, dela gaiagatik, luzeragatik edota kontatzen den istorioagatik.

Gida irekia egin nahi izan dugu eta horregatik, gogo onez onartuko ditugu liburu gehiagoren inguruko iradokizunak.

Nahikoa da [argitalpenak@habe.org](mailto:argitalpenak@habe.org) helbidera mezu bat bidaltzea.

Edonola ere, <http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irakurgai-mailakatuak> helbidean gida honen web bertsioa aurkituko duzula kontuan izan, erreferentzia berri bat dagoen bakoitzean eguneratuko dena.

## AURKIBIDEA

### A1 MAILA

Borrokalari argitsuak (+CD)	4
Ehuneko ehun %100	4
Otsoa (+ CD)	4
Siberiako lorea (+CD)	4
Tangoa noizean behin (+CD)	4

### A2 MAILA

Ainhoa eta marrazoa	5
Aitonaren hamaikakoa	6
Atzapar arrastoak	6
Bidaia arriskutsua	5
Hego Itsasoetako ipuinak	5
Istanbul-en elkartuko gara	7
Jane Eyre	6
Katu beltza	6
Kontrabandista	7
Maitasun istorioa	5
Munduko buruargiena	6
Superheroia naiz, eta orain zer?	5

### B1 MAILA

Bagdadeko aurpegiak	8
Begi argi horiek	9
Berebereen alfombra	8
Beste norbaiten zapatak	7
Bosniara nahi	8
Cantervilleko mamua	10
Dragoien orroa	8
Ezta inola ere	9
Hanka-sartze bikainak	9
Hegoaldera	7
Ingelesen hilerria	10
Lurtarrak	7
Piztia Bilbon	9
Promesa	10
Salomon erregearen meatzeak	9
Xivaren malkoak	8

### B2 MAILA

110. street-eko geltokia	21
31 baioneta	11
Ai ama!	19
Amaren eskuak	12

### B2 MAILA

Amodioaren gazi-gozoak	17
Apaiz zaharraren gitarra	20
Arotzaren eskuak	12
Bilbao-New York-Bilbao	11
Bizitza homeopatikoa	11
Connemara gure bihotzetan	18
Eguzki beltzaren sekretua	14
Errauts	10
Eztia eta ozpina	20
Gerra da leku honen izena	16
Gloria mundi	14
Greta	15
Griot	15
Hamabost zauri	15
Han goitik itsasoa ikusten da	15
Harry Potter eta sorgin-harria	18
Ilunkerako xuxurlak	19
Ipuin batean bezala	16
Izar-malkoak	17
Kaio baten historia	11
Kale gorrian	13
Karonte	13
Kitto dena!	21
Kleopatra	13
Koaderno gorria	19
Koaderno handia	20
Kolosala izango da	16
Komunista.com	14
Kutsidazu bidea, Ixabel	20
Maggie, kaleko neska bat	10
Mendaroko txokolatea	14
Morto vivace	12
Mozorroaren xarma	12
Ordaina zor nizun	17
Ostegunak	20
Ostiralak	19
Palestina zure mina	15
Pijama marradunaz jantzitako mutikoa	12
Riomundo	14
Saturno	21
Sisifo maite minez	17
SPrako tranbia	18
Suminaren estrategia	11
Tango urdina	16

## AURKIBIDEA

### B2 MAILA

Tentazioak .....	19
Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia ...	13
Urtebete itsasargian .....	13
Van't Hoffen .....	16
Zazpi kolore .....	18
Zeta .....	18
Zorion perfektua .....	17

### C1 MAILA

Agur, Euzkadi .....	26
Ainhoari gutunak .....	28
Antzararen bidea .....	22
Arbelaren gainean .....	25
Argizariaren egunak .....	27
Arima enkoniatuak .....	23
Atabala eta euria .....	29
Aulki-jokoa .....	22
Azeria eta lehoia .....	23
Behi euskaldun baten memoriak .....	28
Berandu da gelditzeko .....	27
Bi anai .....	29
Bi bihotz, hilobi bat .....	26
Bihotz bi .....	27
Diamantezko miraria .....	23
Elizondoko eskutitzak .....	30
Erregearen mezularia .....	21
Eta orain badakit .....	21
Eulien bazka .....	25
Ezer baino lehen .....	28
Festa aldameneko gelan .....	23
Galdu arte .....	28
Gauza txikien liburua .....	25
Gorde nazazu lurpean .....	27
Gure barria 1975 .....	27
Haltzak badu bihotzik .....	29
Hamaseigarrenean aidanez .....	30
Haur besoetakoa .....	31
Hauts bihurtu zineten .....	24
Hil ala bizi .....	30
Hyde park-eko hizlaria .....	24
Ihes betea .....	24
Inesaren balada .....	26
Irene, tempo di adagio .....	29
Joanak joan .....	23

### C1 MAILA

Kattalin .....	24
Kcappo, tempo di tremolo .....	30
Lagun izoztua .....	26
Musika airean .....	22
Mutuaren hitzak .....	25
Narrazioak .....	30
Nerea eta biok .....	28
Obabakoak .....	29
Otalorea .....	22
Peaceful soldadua .....	24
Soinujolearen semea .....	26
Sukar ustelaren urtea .....	25
Zer da, ba, maitasuna? .....	22

### C2 MAILA

Aurpegirik gabeko hiltzaileak .....	32
Autopsiarako frogak .....	32
Bestea da mundua: Orbetarrak I .....	33
Egungentziaren esku izoztuak .....	33
Emea .....	35
Etiopia .....	35
Ezer gabe hobe .....	33
Fikzioaren izterrak .....	32
Garbiketa .....	31
Gizona ilunpean .....	34
Haragiaren gauak eta egunak: Orbetarrak II ....	33
Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua .....	34
Ia denaren historia labur bat .....	33
Konpainia noblean .....	34
Kurrin-kurrun vitae: maisua baten ikarak eta ostikadak .....	34
Martutene .....	31
Moroak gara behelaino artean? .....	32
Nor bere bidean: Orbetarrak III .....	32
Odolaren sua .....	31
Otto Pette: hilean bizian bezala .....	34
Santa Kruz apaiza .....	35
Suite frantsesa .....	31



**Zailtasun-maila:**  
**A1** ●●●●●●

**BORROKALARI ARGITSUAK**  
**(+ CD)**  
Elkar, 2012  
Miren Agur Meabe


Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu liburu honek. Pertsonaia guztiak dira borrokalaria: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bitzta menderatzeko.



**Zailtasun-maila:**  
**A1** ●●●●●●

**OTSOA**  
**(+ CD)**  
Elkar, 2012  
Josu Lartategi


Otsoa lasai bizi da mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratuz, familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: giza-ki, beldurgarri eta krudela. Zer gertatuko zaio gizakiari otsoa ere beldurgarria eta krudela bada? Nor nagusituko ote da?



**Zailtasun-maila:**  
**A1** ●●●●●●

**SIBERIAKO LOREA**  
**(+ CD)**  
Elkar, 2012  
Josu Lartategi


Andre zaharraren bitzta lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxagarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da. Emakume gaztearen bitzta, berriz, etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonía-enpresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bitzta hori goitik behera aldatu da.



**Zailtasun-maila:**  
**A1** ●●●●●●

**TANGO NOIZEAN BEHIN**  
**(+ CD)**  
Elkar, 2012  
Miren Agur Meabe

Malena *au pair* gisa dator Buenos Airesetik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian bizipen gazi-gozoak izango ditu, eta Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutuko du.



**Zailtasun-maila:**  
**A1** ●●●●●●

**EHUNEKO EHUN % 100**  
Erroa, 2011  
Xabier Monasterio

100 (ehun) zenbakia askotan agertzen da. Dena zenbaki horren inguruan antolatuta dago liburuan. Liburuan Euskal Herriko eta kanpoko gauzak kontatzen dira, eta guztiak ehun (100) hitzetik beherakoak dira.




**Zailtasun-maila:**  
**A2** ●●●●●●

### **HEGO ITSASOETAKO IPUINAK**

Erroa, 2011  
R. L. Stevenson  
Egok.: X. Monasterio, A. Akerreta

Robert Louis Stevenson idazleak Samoa uharteetan eman zituen bere azken urteak. Hango jendeak Tusitala deitzen zion, hots, ipuin-kontalaria. Egia esan, Stevensonen liburuetan ahozko literaturaren edertasuna aurkitzen dugu. Eta ipuin hauetan Polinesiako magia ere bai.




**Zailtasun-maila:**  
**A2** ●●●●●●

### **AINHOA ETA MARRAZOA**

Aizkorri, 2005  
Josu Lartategi

Ainhoa txikia kostaldeko herririka polit batean bizi da. Begien aurrean itsasoa du beti. Bat-batean, ordea, izaki berri bat agertu da itsasoan. Eta biztanle handi eta erraldoi hori Ainhoaren laguna da, marrazoa. Marrazo-ehiztariek, batez ere Morante gizon ilunak, ez dute begi onez ikusiko harremana.




**Zailtasun-maila:**  
**A2** ●●●●●●

### **MAITASUN ISTORIOA**

Aizkorri, 2005  
Josu Lartategi

Maitek 47 urte ditu. Publizitate-agentzia batean dabil lanean, bera da kanpaina guztien buru. ia-ia dena du, maitasuna izan ezik. Halako batean hogeit bat urteko argazkilaria ezagutuko du, eta seko maitemindurik geratuko da. Gehiago jakin nahi?




**Zailtasun-maila:**  
**A2** ●●●●●●

### **SUPERHEROIA NAIZ, ETA ORAIN ZER?**

Aizkorri, 2005  
Josu Lartategi

Zer egin goizean goiz altxatu eta ispilura begiratzen dugunean, superhero bihurtu garela ikusten badugu? Istoriotxo hau umoretsua da, elkarriketa xeblez bete eta irakurterraza. Protagonistak Kirmen eta Xabi dira. Bi adiskideak ez datoz bat superhero izatearen kontu horretan, eta gorabehera barregarriak izango dituzte.




**Zailtasun-maila:**  
**A2** ●●●●●●

### **BIDAIA ARRISKUTSUA**

Elkar, 2000  
Alwyn Cox  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Burdin meatzetako enpresa batentzat geologi ikerketak egiten ari den talde bateko lau kide oihanetik irten ezinda gelditzen dira euri-jasa handiengatik. Baseko kanpamendura itzultzeko bide bakarra itxita dago, ibaiko ur handiek zubia apurtu dutelako. Talde-burua, berak ez onartu arren, egoeraren kontrola galtzen hasi da.




Zailtasun-maila:  
A2 ●●●●●●

### MUNDUKO BURUARGIENA

Elkar, 2000  
Norman Whitney  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Mahmoud eskola-sistema arruntetik irten eta unibertsitatean hasten da ikasten tutore ofizial baten babespean. Hemeretzti urterako erabakia du munduko pertsonarik buruargiena izan nahi duela. Eta irrati eta telebistako lehiaketetan parte hartuz, sistematikoki bere helbururantz doa etengabe, nahiz eta bide horretan beste batzuen bizitzak hondatu. Alegia moderno honetan gazte buruargi bat ondorio tamalgarrietara darama bere gutziak.




Zailtasun-maila:  
A2 ●●●●●●

### AITONAREN HAMAIAKAKOA

Elkar, 1999  
Jeremy Taylor  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Albert Fenek eta haren lagunek hirurogei urte baino gehiago zituzten guztiak, eta guztiak nahi zuten futboleko egin! Ashraf lagun gaztearekin "Aitonaren Hamaiakakoa" osatu zuten. Istorio honetan kontatzen da nola ikasi zuten hobeto jolasten... eta garrantzi handiko partidu bat irabazten.




Zailtasun-maila:  
A2 ●●●●●●

### JANE EYRE

Elkar, 1998  
Charlotte Brontë  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Jane Eyre maistra gazte behartsu bat da, Rochester jaun aberatsarentzat lan egiten duena. Janek maite du ugazaba eta berarekin ezkondu nahi du. Nagusiak ere maite du Jane, baina elkarrekiko maitasun hori oztopatzen duen zerbait gordetzen du ezkutuan.




Zailtasun-maila:  
A2 ●●●●●●

### ATZAPAR ARRASTOAK

Elkar, 1991  
John Landon  
Itz.: J. A. Mujika

Hiru bat metro altu izango zen munstroa! Gela-sabaira hel-tzen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk. Hegazti-mokoa zuen munstroak; hegorik ez. Besoak soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Esku-oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorri-gorriak. -Atzapar horiek lau lagun hil dizkidate- esan zuen ahots batek.




Zailtasun-maila:  
A2 ●●●●●●

### KATU BELTZA

Elkar, 1990  
John Milne  
Itz.: J. A. Mujika

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen protagonista Salahadin el Nur polizi inspektorea da. Egipton europar arkeologo bat hilda agertu denez, balio handiko estatuatxo bat berreskuratzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista batzuen atzetik.






Zailtasun-maila:  
**A2** ● ● ● ● ● ●

### KONTRABANDISTA

Elkar, 1990  
Piers Plow  
Itz.: Iñaki Mendiguren

John Samuel Famek maiz igarotzen du muga. Ustez gaizkile batzuk ditu lagun. Urrezko estatua baliotsu bat desagertu denez, Roland inspektorea berehala hasi zaio segika Fameri, baita beste lapur-talde baten burua ere. Baina Famek beste kezka batzuk ditu: nor hil ote du bere nagusia zen Harker? Eta zer esan nahi ote du hil aurretik Harkerek idatzita utzi zion olerkiak?



Zailtasun-maila:  
**A2** ● ● ● ● ● ●

### ISTANBUL-EN ELKARTUKO GARA

Elkar, 1988  
Richard Chisholm  
Itz.: J. A. Mujika

Han egon zen pixka batean Tom kale erdian, etxe ilun eta isil hari begira. -Anjela!- esan zuen poliki bere artean-. Anjela! Non arraio zaude? Handik metro gutxitara, gabardina griseko gizona zegoen, atari ilun batean gordeta, Tomi begira. Honen mugimendu guztiak arretaz segitzen zituen...



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ● ●

### BESTE NORBAITEN ZAPATAK

Elkar, 2012  
Garazi Kamio

Era askotakoak dira Garazi Kamioren ipuin-liburu honetako pertsonaiak, sexuz, adinez, bizibidez eta kezkaz. Denetan nabarmentzen da, ordea, gizon-emakumeenganako begirada berezi bat: behatzailea baina epaitzen ez duena. 8 ipuin labur, laster batean irakurtzeko modukoak.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ● ●

### LURTARRAK

Erroa, 2011  
Xabier Monasterio

Denok bizi gara Lurrean, denok gara lurtar. Eta gehienok presaka bizi gara, geure bizimoduaz pentsatu gabe. Gure ordez, urruneko galaxia batetik etorritako estralurtar batek egiten du lan hori: gurea ez bezalako ikuspegi batetik, estralurtarrak hankaz gora jartzen du lurtarren zibilizazioa, umore eta ironia handiz, horixe baita kritika egiteko biderik onena.




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ● ●

### HEGOALDERA

Ibaizabal, 2008  
Manuel L. Alonso  
Itz.: J. A. Sarasola

Jaioterritik irten ez den 10 urteko neska 15 egun pasatuko ditu aitarekin, -iragan iluneko gizona- zenbait urte elkar ikusi gabe egon arren. Mila kilometrotik gorako bidaiari ekingo diote sos gutxiarekin, suertearen esku utziz etapa bakoitza. Eguneroko zailtasunekin batera, berriz elkarrekin bizitzeko aukera dute jokoan.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### BAGDADEKO AURPEGIAK

Erein, 2007  
Juan Kruz Igerabide

Jazmina eta Alí dira protagonistak eta Jazminak bertako errealtate gogorraren berri ematen du eta era berean txikitatik etxean sufritu dituenak. Sufrimenduan murgiltzen da istorioa, baina adorea eta indarra ere erakusten du.




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### DRAGOIEN ORROA

Elkar, 2005  
Fernando Morillo

Bi hari ditu *Dragoien orroa*-k. Orain milaka urtetakoa bat: azken herensugea hiltzeko bildu dira basajaunak, jentilak, gizotsoa... Gogorra da borroka: garai mitiko zaharraren amai- era sumatzen da zeruertzean. Bigarren harian, gure egunetara etorrita, gaua mendian akanpatuta pasatzeko asmoa du Eskoriatzako gazte-koadrila batek; ez dakite ondo zer ezkutatzeko duen lurpeak!




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### BEREBEREEN ALFONBRA

Hiria, 2003  
Iñaki Irasizabal

Bilbon ezagutzen dute elkar neskak eta mutilak, Bilbon maitatzen suharki. Baina Bilboko gertakizun latzak argitzeko, Marokoraino luzatzen da nobelaren haria. Maitasunaren eta herioaren nobela, Iñaki Irasizabalen bigarren liburua genero poli- zikoan ere egokitzen da.




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### BOSNIARA NAHI

Aizkorri, 2003  
Juan Kruz Igerabide

Gudatik ihesi, bosniar familia Bartzelonan da; tamalez, aitarik gabe. Ama, alaba eta semea bizitza berrira ohitzen doaz. Aita dute gogoan: bizi ote da? Horrexegatik, Nezir gaztea Jugoslavia ohira doa aitaren bila.




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### XIVAREN MALKOAK

Giltza, 2002  
Cesar Mallorquí  
Itz.: Irene Aldasoro


Javier nerabea Madrilen bizi da. Aita gaixotu -kutsagarria zen gaitza- eta Javier eta anaia nagusiak etxea laga zuten. Anaia Madrilen gelditu zen, eta Javier Santanderrera joan zen izebaren etxera, berak gustuko ez izan arren. Madriletik ateratzean zelai berdeak, mendiak, Kantauri itsasoa... ikusi, ezagutu zituen: mundu berri bat Javierrentzat. Santanderren Obregón familiarekin izan zen udako oporretan, baina hori ez da misteriotsuena. Egun batean mamu bat ezagutu zuen ...



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

**BEGI ARGI HORIEK**  
Aizkorri, 2000  
Juan Kruz Igerabide


Madrilgo neska batek bidaia luze bat egingo du Peruko Cuzcora. Ez da turista bat. Handik, Machu Picchutik, Peruko kultura zoragarria eta egoera politikoa erakutsiko dizkigu.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

**PIZTIA BILBON**  
Aizkorri, 2000  
Josu Lartategi


Hiltzaile odolzale bat dabil Bilbon. Auskalo nor den, nondik datorren, zergatik burutzen dituen sarraski ikaragarri horiek. Ez dago hilketen lekukorik, ez hiltzailearen arrastorik: poliziek ez dakite zer egin. Hiritarrak, beraz, oso izututa daude, orain-txe norbait hil dezakeelako. Komunikabideek izena jarri diote hiltzaile misterioitsuari: Piztia.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

**EZTA INOLA ERE**  
Aizkorri, 1999  
Christine Nöstlinger  
Itz.: J. K. Igerabide


Gurasoak banatzean hiru seme-alabak nola sentitzen diren azaltzen du Cristine Nöstlingerrek. Denak ondo samar kontontzen dira beraien artean: diru gutxirekin, baina pozik bizi dira.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

**HANKA-SARTZE BIKAINAK**  
Elkar, 1999  
Stephen Pile  
Itz.: Iñaki Mendiguren


Badirudi batzuetan dena ongi ateratzen zaiela mundu honetan: jeinuak, heroiak, eraginkorrek, arrakastatsuak...dirudite. Baina, zaude lasai, askoz normalagoa baita bestelakoak aurkitzea. Bizitzan sarri izaten ditugu porrotak, hutsegiteak, akatsak, okerrak... labur esanda, hanka-sartze bikainak egiten ditugu! Horien benetako adibide laburrak aurkituko dituzu liburu honetan.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

**SALOMON ERREGEAREN MEATZEAK**  
Elkar, 1998  
H. Rider Haggard  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Galdutako lagun baten bila, Afrikako lurralde ezezagunetan barrura sartuko dira hiru gizon. Eta laguna aurkituko dute, bai, baina abentura arriskutsu eta kilikagarri askoren ondoren. Bide batez, eta mendi baten barruan, kobazulo ezkutu batean, altxor ikaragarria aurkituko dute: Salomon erregearen altxorra!




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### INGELESEN HILERRIA

Giltza, 1993  
Jose Maria Mendiola

Inork ez du lorerik eramaten Donostiako Urgull mendiaren maldan dagoen Ingelesen Hilerrira. Baina 1976. urteko udako arratsalde batean, neskatxa batek negar egin zuen hilobi baten aurrean.




Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### PROMESA

Elkar, 1992  
R. L. Scott-Buccleuch  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Pedro etsita dago, itxaropenik gabe. Umetxo jaioberria du, baina dirurik ez, ezta lanik ere. Nola sinetsiko du, bada, atso beltzaren promesa? -Mutiko hau hazten denean, ospetsua izango da- esan zion atsoak-. Izan guraso ona. Egunen batean seme ona izango da zuretzat.



Zailtasun-maila:  
**B1** ● ● ● ● ●

### CANTERVILLEKO MAMUA

Elkar, 1991  
Oscar Wilde  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Familia iparramerikar batek Cantervilleko gaztelua erosi du, mamua barne. Hau gazteluko biztanle berriak beldurtzen saiatuko da. Baina yankiek ez dute aintzat hartzen eta azkenean beraiek dute mamua izu-ikaritzen.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

### ERRAUTS

Erein, 2011  
Eneko Aizpurua

Magrebtar bat labankadaka hil dute Lazkaon. Abokatu batek hilketa argitzeko eskatu dio Mikel Egileorri. Lan eta diru arazok eraginda, Egileorrek mandatua onartu eta lanari ekingo dio berehala. Ikerketak ezkutuko interes zikinen, negozio ilunen eta eraildako etorkinen errautsak lurpetik atera eta denen bistan haizatuko ditu, ustelkeriaren kiratsa bazter guztietara zabalduz.




Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

### MAGGIE, KALEKO NESKA BAT

Erroa, 2011  
Stephen Crane  
Mold.: Xabier Monasterio

AEBetan jaio da Maggie, XX. mendeko bigarren hamarraldian, New York-eko auzo istilutsu batean. Ama alkoholikoa du; giroa hipokrita du Maggie, ez dago gupidarik berarentzat. Prostituzioan sartuko da, eta ez da kontua ondo amaituko. Garai horretako gizartea islatzen du Crane.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

### **BILBAO-NEW YORK-BILBAO**

Elkar, 2008  
Kirmen Uribe

Loiun abiatu eta JFK aireportura iristen den hegazkin-bidaia bat da, berez, eleberrri hau. Hiru belaunaldiren historia kontatzen zaigu: aitona-amonei dagokien gerraurrekoa, gurasoen sasoiko frankismoarena, eta idazlearena berarena, XIX. mendean hasi eta XXI. mendera arte doan epopeia txiki baten moduan. Batetik besterako lokarri, Aurelio Artetaren koadro bat.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

### **BIZITZA HOMEOPATIKOAK**

Susa, 2008  
Xabier Mendiguren

Bi kontakizun dakartza liburuak. Bietan protagonista bana, biak daude euren bizitzaren une erabakigarri batean. Hala ere, lehen istorioa ia esperpentikoa da, eta bigarrena, dramatikoa. Lehenak umorea du, eta umoretik gutxi bigarrenak, gurasoen zaintza baitu gaietako bat, gairik garrantzitsuena.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

### **SUMINAREN ESTRATEGIA**

Elkar, 2008  
Fernando Morillo

Aita hil ondoren, semeak Garbiñe neskalagunarentzat bakarrik ditu begiak, eta amak Goikoetxea ikertzailea kontratatzen du semea berreskuratzeko. Ikertzaileak bere estrategiak darabiltza helburua lortzeko, baina Garbiñe ere ona da estrategia-kontuetan.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

### **31 BAIONETA**

Erein, 2007  
Aitziber Etxeberria

Nobela entretenigarria. 1813. urtean Independentzia Gerraren inguruan gertatutako Donostiaren setioan kokatuta dago istorioa. Baina iraganean kokatutako nobela da, nobela historikoa baino gehiago.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

### **KAIO BATEN HISTORIA ETA HEGAN EGITEN IRAKATSI ZION KATUARENA**

Alberdania, 2007  
Luis Sepúlveda  
Itz.: J. M. Mendizabal

Fabula da. Katu-koadrila batek kaio-arrautza ez jan, eta gainera hegan egiten irakatsiko diote kumeari. Horrela, desberdina dena errespetatzen ikasiko dute. Kaio-umearen ama petrolio-isuri batek hil zuen. Beraz, naturari zer errespetu diogun ere azaltzen da.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### **MORTO VIVACE**

Elkar, 2007  
Jon Arretxe

Uztailak 14, festa nazionala Parisen, eta gaua ospatzeko, Sena ibaian doaz Miarritzeko opera-korukoak, bateau-mouche batean afaltzen, kantari. Bat-batean, haietako kide baten gorpu txikitua agertuko da ur gainean. Perrot eta Martinez inspektoreak arduratuko dira heriotza argitzeaz; bata beltza, bestea magrebtarra, Pigalle auzoko giroa askotxo gustatzen zaien polizia gogorak biak. Lanean hasi bezain laster, ordea, katramilatu egingo zaie ikerketa, gertakari berri eta ezuste-koak direla-eta.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### **MOZORROAREN XARMA**

Erein, 2007  
Asel Luzarraga

Abenturazko nobela. Internet bidez ezagutzen dira pertsonaia nagusiak. Inor ez da dirudiena. Thailandian elkartuko dira. Tartean da Zigor euskalduna. Emakume polizia batek Zigor harrapatu nahi du. Parodia da nagusi.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### **PIJAMA MARRADUNAZ JANTZITAKO MUTIKOA**

Alberdania, 2007  
John Boyne  
Itz.: Mirentxu Larrañaga

Bruno eta Shmuel mutikoak lagun egingo dira. Brunoren aita nazia da, eta Auschwitz kontzentrazio-esparruan dauka Shmuel. Alanbrezko hesi baten alde banatan jolastuko dira. Zoritxar handi bat gertatuko da Bruno Shmuel dagoen aldera pasatzen denean.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### **AMAREN ESKUAK**

Elkar, 2006  
Karmele Jaio

Ez da esaten, baina dirudienez Alzheimerra du Nerearen amak, Luisak. Baina Nereak bere bizitza du, kazetaria da, ama da, emaztea. Nola txertatu norberaren bizitzan ama zaindu nahia? Ez da samurra, baina Karmele Jaio bizitzaren alde egin du apustu.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### **AROTZAREN ESKUAK**

Elkar, 2006  
Alberto Ladron Arana

Ane aitona zenaren baserriko lurretan, Nafarroan, aurkitutako hilotz mutilatua zein den ikertzen hasi da. Ikerketan hilketa gehiago deskubrituko ditu. Suspensez betetako liburua da. Nobela beltzaren azpigerrokoa.




Zailtasun-maila:  
B2 ●●●●●

**TXAKURRARI GAUEAN  
GERTATUTAKO ISTRIPU BITXIA**

Igela, 2006  
Mark Haddon  
Itz.: Xabier Olarra

Txakurrari gertatutako istripua ikertzen hasiko da Christopher gaztea. Autista da Christopher, Asperger sindromea du. Poliziak galdeketa zorrotza egin dio, eta bere burua defenditzeko, bera hasiko da kasua ikertzen eta ikerketa horiek liburu batean idazten.



Zailtasun-maila:  
B2 ●●●●●

**URTEBETE ITSASARGIAN**

Elkar, 2006  
Miren Agur Meabe

Bilbon dagoen Gerra oihartzunetik urruntzeko asmoz, Alejandro osabagana daramate Jon, kostako Garraitzeta herrira. Osaba itsasargiko gizona da. Bertan neska bat ezagutuko du Jonek eta maiteminduko da. Baina gerra Garraitzeta helduko da; osaba hilko diote, eta aitaren bila abiatu beharko du. Aurkituko ote du?



Zailtasun-maila:  
B2 ●●●●●

**KALE GORRIAN**

Elkar, 2005  
Robert Swindells  
Itz.: Iñaki Mendiguren

Ez da gozoa Londresen behartsu izatea, etxegabe, eskale... Ez Londresen, ez inon. Hori da liburu honen gaia. Badirudi zera esan nahi digula idazleak: edonor bihur liteke istant batean, kale gorriko kide.



Zailtasun-maila:  
B2 ●●●●●

**KARONTE**

Elkar, 2005  
Asel Luzarraga

Koman egon da Amets, urtebete, eta Naroa lehengusina bera zaintzen. Komatik esnatuta, Ametsen andregaiarekin, Ainara-ekin, eta Naroarekin berarekin betiko bizimodura itzuli nahi du. Baina ezin: burmuinean norbaitzuek prozesagailu bat jarri diote eta. Istorioak Japonera eramango du protagonista.



Zailtasun-maila:  
B2 ●●●●●

**KLEOPATRA**

Elkar, 2005  
Jon Arretxe


Polizia-nobelez barre egiten duen liburua. Torrente zinepertsoneiaren antza du Simon Artabe protagonistaren ikeretzeko moduak. Ikerketak putetxe batera darama ikertzailea, eta bere laguntzaile aldrebesa, Etxebe. Mandeuli Urdina aurkitu nahi dute, baina zer den ere ez dakite.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**KOMUNISTA.COM**  
Elkar, 2005  
Joan Mari Irigoien


Modelo izan nahi du Inesek, txikitatik. Eta Kontxiri, bere amonari –komunista, banandua, errepublikanoa eta espetxean egondakoari– ez zaio bilobaren ideia hori batere gustatzen. Kontxik du Inesen ardura. Jakingo al du Inesek telebistak emango dion aukerari etekinik ateratzen? Eta sortuko ote du Komunista.com ataria amonak?



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**MENDAROKO TXOKOLATEA**  
Elkar, 2005  
Iñaki Irasizabal

Genero beltzeko nobela honek heriotza bat du abiapuntu, eta susmagarri nagusiak ikertzen hasi beharko du, bere burua defendatzeko. Ikerketan aurrera egin ahala, bere bizitza hondatzen joango da.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**RIOMUNDO**  
Txalaparta, 2005  
Jon Maia


Bi istorio hauetan protagonistek beren herria utzi behar dute, batean goseak eraginda, bestean politikak eraginda. Deserria Euskal Herria da bietan.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**EGUZKI BELTZAREN SEKRETUA**  
Elkar, 2004  
Alberto Ladrón Arana

Jaurlaritzak erdi euskaldun erdi alemaniar den espioi bat bidaliko du Parisa, Alemaniara eta Tibetera, nazismoaren eta budismoaren arteko harremana ikertzera. Hori susmagarria da, eta atzetik dauzka Del Valle agente espainiarra eta espioi alemanak.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**GLORIA MUNDI**  
Elkar, 2004  
Fernando Morillo

Mundua alda dezakeen deskubrimendu bat ezkutuan gorduko dute zientzialariek; 50 urte beranduago ikertzaile gazte bat ikertzen hasiko da deskubrimendu horren nondik norakoak eta hil egingo dute.





Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

**GRIOT**  
Elkar, 2004  
Jon Arretxe


Afrika beltzean, Burkina Fason, bizikletaz ibilita Arretxek eza-gututakoak dira protagonista liburuan: afrikarrak, europar afrikartuak...



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

**HAMABOST ZAURI**  
Elkar, 2004  
Karmele Jaio

Mina da giza harremanen osagaietako bat, eta 15 istorio hauetan min hori ateratzen da irabazle; hasierako ipuinetan ematen du itxaropenari ez zaizkiola ateak ixten, baina gero, desgertu egiten da itxaropen-zentzu oro.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

**HAN GOITIK ITSASOA IKUSTEN DA**  
Elkar, 2004  
Julen Gabiria


Gino Bartali txirrindulari ospetsuaren jarraitzailea, Roman Alberdi, da protagonista. Eta Euskal Herrian, Frantzia eta Italia ibiliko da. Bartali bizi den herriraino joango da Roman, Italiaraino. Eta bizikleta injustiziak kontatzeko bide izango da. Gerra da beste protagonista.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

**PALESTINA, ZURE MINA**  
Elkar, 2004  
Begoña Bilbao


Gazako (Palestina) erietxe batean zabaldu ditu begiak emakume gazte batek. Buruan kolpe bat hartu du, eta ordu batzuez konortea galdu ondoren, ez du ezer gogoratzeko. Memoria galdu du, iraganaren oroimena; ez daki nor den, non dagoen, nork edo zerk zauritu duen eta zergatik.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ●

**GRETA**  
Elkar, 2003  
Jasone Osoro

Oskarrek ez du amarik eta Greta manikia darabil amaren ordeko: hitz egiten dio, orraztu... Baina Oskarren andregaiaren Anak, manikia edo ni, esaten dioenez, Gretarentzat erakusleho edo eskaparate bat bilatu nahiko du honek, hirira joanda. Hirian ikasiko du Gretarekiko zilbor-hestea eteten.



Zailtasun-maila:


B2 ●●●●●

### KOLOSALA IZANGO DA

Txalaparta, 2003

Joseba Sarrionandia

Gerra zibilaren garaira garmatza liburuak, eta diktaduraren hasierako urteetara, 11 urteko ume baten ikuspegitik kontatua. Ume-kozkorrak gerrara jolastuko dira, baina azkenerako jabetuko dira jolasetik gutxi duela, batez ere etxeoak direnean gerran dabilzanak.



Zailtasun-maila:

B2 ●●●●●

### TANGO URDINA

Erein, 2003

Aitziber Etxeberria

Norberaren bizitza oso hutsala denez, besteena espiatuz bete nahi du bere hustasuna, baina auzokoen bizitzak ere ez dira dena lore, arantza asko dituzte, eta arantza horietako bat oso mingarria da, tratu txarrak direla-eta. Eta nola jokatu dute jipoiaren lekukoek, auzoko bizilagunek?



Zailtasun-maila:

B2 ●●●●●

### VAN'T HOFFEN ILEA

Elkar, 2003

Unai Elorriaga

Arbidas eskualdera bidaltzen dute Matias; hango hiru herritan jendea elkarriketatu behar du. Istorioak bildu behar ditu, pasadizoak; eta Tabucchi entziklopediako testuak ikertu, ea han bere lagun Bereger-ek idatzitako nobela beten pasarte bat dagoen.



Zailtasun-maila:

B2 ●●●●●

### GERRA DA LEKU HONEN IZENA

Elkar, 2002

Jordi Serra i Fabra

Itz.: Joxantonio Sarasola

Gerrara doa kazetaria, lehen aldiz kazetari gisara. Itzultzaile arituko zaio mutiko bat, eta gerraren krudelkeriaren gainetik gaia aterako da bien arteko adiskidetasuna.



Zailtasun-maila:


B2 ●●●●●

### IPUIN BATEAN BEZALA

Elkar, 2002

Joan Mari Irigoien

Sarak Euskal Herria utzi (familia, lagunak...) eta senargaiarekin, Sergiorekin, Granadara doa bizitza berri baten bila. Sergiok beste neska bat ezagutuko du. Sara drogen mende dagoen mutil batetaz maiteminduko da, eta bera ere drogak harrapatuko du.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**IZAR-MALCOAK**  
Aizkorri, 2002  
Fernando Morillo

Beñat informatikazale lotsatia maiteminduta dago, eta Mainerrekin ligatzea lortuko du. Sexu-kontuan Mainerrek eskarmentua du, eta Beñatek ez du gaizki geratu nahi. Hori ez du kontrolatzen, Informatika bezala ez behintzat.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**ZORION PERFEKTUA**  
Alberdania, 2002  
Anjel Lertxundi

16 urteko neska bat atentatu baten lekuko da, hilketa batena. Urteen poderioz, neska emakumetuta, hilketaren ondorengo 24 orduak kontatzen ditu, nola mugitu zizkion barrenak. Euskal gatazka bere gordinean.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**AMODIOAREN GAZI-GOZOAK**  
Ibaizabal, 2001  
Aitor Arana


XX. mendearen hasieran lanerako salduko dute Miren, base-ri batera. Beti lanean, beti zerbitzatzen, baina maitasun-uneak ere ezagutu zituen baserrian.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**ORDAINA ZOR NIZUN**  
Elkar, 2001  
Joxemari Urteaga


Justo Badiola argazkilariari norbaitek urrunetik ipuinak bidaltzen dizkio. Ipuin bakoitzean hilketa bat dago –eta argazki-zatiak. Ipuin bakoitza munduko herri desberdin batean dago kokatuta, baina Justo, dena txantxa bat delakoan, bere inguruko guztiekin agertuko da mesfidati. Bukatu zaio bizitza pa-txadatsua.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**SISIFO MAITE MINEZ**  
Txalaparta, 2001  
Laura Mintegi


Anek senarra eta alabak utzi egiten ditu, Mikelen besoetan erortzeko. Baina Mikelek ere asebetetzen ez, eta beste gizon bat ezagutuko du. Ane familiarengana bueltatzean Karnele lagunaren eta Esteban psikologoaren laguntza beharko du. Anek jakin nahi du zehatz zergatik ihes egin zuen Nikaragua, familia utzita.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**SPRAKO TRANBIA**  
Elkar, 2001  
Unai Elorriaga

Lucas agurea erotzen ari den arren, bizirik ditu ametsak, 8.000 metroko mendiak, eta oroimenak. Emaztea hila du, baina behin eta berriz agertzen da eleberrian. Lucas azkenean da, baina dramatismo gabe kontaktzen du istorioa Elorriagak. Dramatismo ez horretan zeresan handia dute agureak eta bere arrebak etxean hartu dituzten bi okupek.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**ZETA**  
Igela, 2001  
Alessandro Baricco  
Itz.: Koldo Biguri

XIX. mendea, Japonek ia ez du harremanik Europarekin, baina Hervé Joncour frantziarra maiz doa hara zetarren arrautzak eroatera, zeta-hariaren inguruko bere Lavilledie herriko industria hornitzeko. Beraz, ia bidaia-liburua dirudi.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**CONNEMARA GURE BIHOTZETAN**  
Elkar, 2000  
Julen Gabiria


Eider istripuz hil da, eta horrek Irlandan barrena egindako bidaia errepikatuko du bere senargaiak, neskak idatzi zuen egunerokoa lagun duela. Egunerokoan, ordea, atsegina egingo ez zaion norbait deskubrituko du mutilak. Eta Eider idealizatua zuela ere bai.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**HARRY POTTER ETA SORGIN-HARRIA**  
Elkar, 2000  
J. K. Rowling  
Itz.: Iñaki Mendiguren


Harry Potter umezurtz geratu da, eta bere osaba-izeba gogai-karriekin eta bere lehengusu baboarekin bizi behar da. Harry triste sentitzen da, baina egun batean bizitza aldatuko dion gutun bat jasotzen du, Hogwarts azti-eskolan onartu dutela adierazten duena.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

**ZAZPI KOLORE**  
Elkar, 2000  
Jon Arretxe

Beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria dira koloreak. Beltza eta zuria heriotzari lotuak daude, gorria ikarari eta abar. Munduan egindako bidaietan kokatzen ditu istorioak Arretxek, lehena salbu. Egun azkarregi bizi gara, eta horren kontrapisua edo, bada, 27 testu labur hauek. Bizitzeko beste modu bat, agian.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**AI AMA!**  
Alberdania, 1999  
Arantxa Iturbe

Amatasunari buruzko kronika mikatza idatzi du Iturbek. Ama izatearen zalantzak, izuak, espantuak, aieneak... ageri dira liburuan.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**ILUNKERAKO XUXURLAK**  
Kutxa Gizarte-Ekintza, 1999  
Iñaki Mendiguren Bereziartu

Artzain protestante batek lesbiana du alaba. Aita dogmatikoa da; Bibliaren interpretazio puritanoa egiten du. Alaba heterodoxoa da, bizizalea. Elkarri eskutitzak idazten dizkiote liburu guztian zehar, etena dute-eta harremana. "Sokatira"n ari direla ematen du, baina nork bereganatuko du nor?



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**OSTIRALAK**  
Elkar, 1999  
Jon Arretxe

Unibertsitate-ikasleek gainditu dute ikasle-garaia, eta bizitza berriari hasteko ordua da; ikasle zirenean ostegunetan egiten zuten parranda, orain ostiraletan. Dena den, ikasle-bizitzari eutsi egin nahi diote nola edo hala, hain gazte ez diren arren.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**KOADERNO GORRIA**  
Erein, 1998  
Arantxa Urretabizkaia


Politika tarteko, ama batek Venezuelan dauzka senarra eta umeak. 7 urte pasatuta, amak mezulari bat bidaliko du umeentzako koaderno gorri batekin, egoeraren gordintasuna eta bere sentimenduak azalduz. Urak berriro bere onera etorriko direla espero du amak.



Zailtasun-maila:  
**B2** ● ● ● ● ● ●

**TENTAZIOAK**  
Elkar, 1998  
Jasone Osoro

25 istorio labur. Gaiak: maitasuna, sexua, gizon-emakumeen artean sortzen diren sentimendu, korapilo eta ezin ulertuak. Protagonistek zerbait lortu nahi dute, desio, batzuetan konfesa ezinak, ase; baina patua ere hor dago. Patuak utziko al die tentazioan erortzen?



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### KOADERNO HANDIA

Alberdania, 1997  
Agota Kristof  
Itz.: Eskarne Mujika

Alabak bere bi seme bikiak amonarekin lagako ditu, gerratik salbatzeko. Bikiak bizitzari aurre egiten ikasi beharko dute, amona sorgin hutsa baitute. Eta amonaren inguruko giroak ere ez die lar laguntzen bizitza goxatzen.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### OSTEGUNAK

Elkar, 1997  
Jon Arretxe

5 ipuin ganberro, ironiko. Protagonistak unibertsitateko gazteak ostegunetan parrandan, ligatu nahi eta ezinean, ikasleen pisuak... Ondo pasatzea apologia bihurtzen du idazleak.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### APAIZ ZAHARRAREN GITARRA

Elkar, 1996  
Joan Mari Irigoien

Lortuko ote du Leontxik osaba Meliton apaizarekin batera Gorostiaga herriko berdegune bakarrean jarri nahi den zabor-egia ez egitea? Etsai gogorak dituzte gero! Adibidez, Polikarpo Gogorza, Bideopit ezizenez.



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### EZTIA ETA OZPINA

Alberdania, 1995  
Patxi Zubizarreta

Selim Al-Qadi marokoarrak bere herrialdetik ihes egiteko gorabeherak: bidaiarako dirua lortzeko lana, Europako turisteekin duen harremana, maitasun-kontuak, Euskal Herrira nola datorren, Bidasoa nola zeharkatzen duen...




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●

### KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

Alberdania, 1994  
Joxean Sagastizabal

Euskaldun berri bat, hirikoa, bere euskara hobetzeko asmoz baserri batera doa, eta bizimodu horretan dituen zailtasun eta erraztasunak hizkuntzarekin, baserri giroarekin, bertako alaba politarekin... Parodia da nagusi.




Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●●

### **KITTO DENA!**

Elkar, 1990  
Chinua Achebe  
Itz.: J. A. Mujika

Kitto dena! Ziur asko, idazle afrikar batek Afrikari buruz idatzitako nobelarik ospetsuenetakoa da. Okonkwo-ren istorioa kontatzen du, Umuofia-ko gizonik garrantzitsuenetakoa. Europarrak bertara iritsi zirenean, ordea, guztiz aldatu zuten bizimodua. Ohiko bizimodua desegin zuten, eta hura onartzen ez zuelako, Okonkwo bera ere bai; azkenean, txakur bat bezala lurperatu zuten. Kito dena!



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●●

### **110. STREET-EKO GELTOKIA**

Elkar, 1988  
Iñaki Zabaleta

Nobela beltza azpigeneroko liburua. Joseba gazte nafarra ihesi doa New Yorkera; ilegalki sartuko da eta etxea alokatzen dion atsoa, horren jakitun, drogaren munduan sartuko du mehatxupean. Baina dena ez da ilun, neska bat ezagutuko du Josebak...



Zailtasun-maila:  
**B2** ●●●●●●

### **SATURNO**

Erein, 1987  
Arantxa Urretabizkaia

Ezbehar batek eraginda alargundu da Luis Mari. Geroztik burua altxa ezinda dabil gizajoa. Berriz maiteminduko da, baina ezin ba dena gozo izan.




Zailtasun-maila:  
**C1** ●●●●●●

### **ERREGAAREN MEZULARIA**

Erein, 2012  
Toti Martínez de Lezea

Santxo VII.a, Nafarroako erregea, Azkarra deitua, Marokora doa: emirraren alabarekin ezkontzeko gogoz. Kanpoan dagoela, bere lehengusu Alfontso VIII.a Gaztelakoak Gasteizko hiribildu-gotorlekua konkistatzen du. Bestalde, Otxoa Izurra gaztea, eskuizkribu misteriotso baten jabe dena, Afrikara doa, Iruñeko apezpikuarekin batera, erregeari Gasteizko hiri setiatuaren berri ematera. Kilpeck gaizkileak Otxoari eskuizkribuak kendu nahi dizkio.




Zailtasun-maila:  
**C1** ●●●●●●

### **ETA ORAIN BADAKIT**

Pamiela, 2011  
Tere Irastorza


Zoriontasunaz hizketan ari den poema-liburua, baina baita minaz ere, izuaz, amatasunaz, literatura-sormenaz... "Zu" bati hitz egiten dio, eta irakurleak sentituko du berari ari zaiola hizketan. Minbiziak eraman zuen Karnele Igartuari dago eskainita liburua.



Zailtasun-maila:  
**C1** ● ● ● ● ● ●

**AULKI-JOKOA**  
Elkar, 2009  
Uxue Alberdi


Eulali, Teresa eta Martiña amonak gozotegian biltzen dira, eta bakoitzak bere aulkia du. Gerra zibilaren ondorioek markatu-tako emakumeak dira; garai latz haiek gogoratuko dituzte, eta, egun, heriotzaren atarian nola ahalegintzen diren bizitzen dute hizpide.



Zailtasun-maila:  
**C1** ● ● ● ● ● ●

**MUSIKA AIREAN**  
Elkar, 2009  
Karmele Jaio

Elena emakume edadetua da, hitz gutxikoa, etsitua, bere barrura begira dagoena, iragana gogoan, nahiz eta leihotik begira bizitza pasatzen denbora asko ematen duen. Alarguna da; mina du belaunean; seme-alabek gazte bat dakarkiotte etxean laguntzeko, Beatriz, Ekuadorkoa. Talka egiten dute Elenak eta Beatrizek.



Zailtasun-maila:  
**C1** ● ● ● ● ● ●

**OTALOREA**  
Erein, 2008  
Toti Martínez de Lezea


Ze eragin izan zuen 3. karlistadak Oñatiko baserri galdu batean? Urrondo sendiko lau anaia, horietako bik baserriaren jabe izan nahi dute; eta Julia konkistatu ere bai. Eta badakizue, gerran eta maitasunean, dena da zilegi.



Zailtasun-maila:  
**C1** ● ● ● ● ● ●

**ZER DA, BA, MAITASUNA?**  
Elkar, 2008  
Miren Agur Meabe

Neska eta mutil (nerabeak) baten maitasun-istorioaren hasiera kontaktzen da. Izan ere, bi pertsona eskatzen ditu maitasunak, bi sentimendu, bi ikuspegi, bat egin dezaketena... edo ez. Berezi eta Mister X ditugu protagonistak; argazkilaritza eta poesia maite dituen neska da Berezi, sentikorra, ameslaria, kritikoa; Mister X, berriz, musika-talde batean dabilen mutila, bere zakartxoan bihozbera, umoretsua, solidarioa.




Zailtasun-maila:  
**C1** ● ● ● ● ● ●

**ANTZARAREN BIDEA**  
Alberdania, 2007  
Jokin Muñoz

1936a, gerra-aurrean, eta 2003. urtea lotzen dira eleberr honetan. ETako kide bati lehergailuak eskuetan eztanda egiten dio Saloun. Mutilaren amak bidaia bati ekingo dio, jakin nahi du zeren bila zebilen bere semea Saloun. Heriotzaren zentzurik ez da ageri: gerra zibilean eta egungo Euskal Herrian.






Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**AZERIA ETA LEHOIA**  
Txalaparta, 2007  
Edorta Jimenez


Armada Garaiezinaren porrota. Fikziozko pertsonaiak, Zubiletak, bidaiari buruzko pergamuak idatziko ditu, Ingalaterrak preso egin baino lehen. Bidaia bera kontatzen zaigu, ihes egiteko asmoak... Denek ez dute nahi etxera itzul dadin. Nobela historikoa da, eta pertsonaia ia gehienak, hainbat andre tarteko, benetan existitu ziren.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**FESTA ALDAMENEKO GELAN**  
Erein, 2007  
Mariasun Landa


Hiri bat: Paris, 1968ko udazkena, hainbat espainiar etorkin, iheslari antifrankista eta frankismoko iluntasunetik eta gristasunetik ihesi joandako beste hainbat gazteren harrera-hiri. Protagonista: independentzia pertsonalaren bila doan euskal neska gazte batek bere lan, gertaera eta maitasun ibilbidea kontatzen du, Parisen ematen duen lehen ikasturtean.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**JOANAK JOAN**  
Erein, 2007  
Yon Etxaide


Etxahun poeta, bertsolari eta koblakariaren bizitzan oinarritutako nobela historikoa: adulterioa, hilketak, ezkontza behartuak, maiorazko ez zirenak Amerikara joan beharra...



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**ARIMA ENKONIATUAK**  
Elkar, 2006  
Xabier Mendiguren

Amodioan nahi eta ezin. Hori da lau istorio hauek biltzen dutena: ikasleaz maitemindu den irakasle heldua, koadrilako hiru lagunen arteko harreman zaila, emakume heldu bi gaztetako istorio zoroak kontatzen...



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**DIAMANTEZKO MIRARIA**  
Elkar, 2006  
Joxe Mari Urteaga

Bidaia-liburua edo abentura-liburua. XVI. mendean kokatua. Martin, mutikotan aita hil zitzaion, eta etxetik joango da Durangora, beiragile batengana ikasle. Maitasuna deskubrituko du. Gero Galiziarra Done Jakue bidea segituz. Martin aita bihurtuko da, eta alabari kontatuko dio nola egin zuten Galizian munduko diamanterik handiena.



**Zailtasun-maila:**  
**C1** ● ● ● ● ● ●

### **HYDE PARK-EKO HIZLARIA**

Pamiela, 2006  
Joxemari Iturralde

70eko hamarkada. Gazte euskaldun batzuen bidaiari inisiati-koa Londres. Uda pasa doaz. Eta han, Hyde Parkean euskaldun erbesteratu bat, zaharra, gerra zibila kontatzen du maleta batera igota. Gazteen noraeza samurtzen, lagungarri izango da Leo zaharra.




**Zailtasun-maila:**  
**C1** ● ● ● ● ● ●

### **IHES BETEA**

Alberdania, 2006  
Anjel Lertxundi

Warner gazte hitlerzale bat da gerra aurreko Alemania nazian. Sekretu handi bat gordetzen du bere familiak, eta berai jakitean ihes egingo du Warnerrek Europan barrena: Trieste aurrena, Frantziara gero. Bidaiak aldatu egingo du erabat.




**Zailtasun-maila:**  
**C1** ● ● ● ● ● ●

### **KATTALIN**

Erein, 2006  
Toti Martinez de Lezea

Durango, 1.500 urtea, sorgin-ehiza. Catalina Goiena belargilearen bizitzan oinarritua. Bera Durangora joana da, emagin izateko ikastera, baina salatu egingo dute, sorgina delakoan. Bera bezala, milaka emakume bizirik erre zituzten. Emakume horiei egiten zaie omenaldia.




**Zailtasun-maila:**  
**C1** ● ● ● ● ● ●

### **PEACEFUL SOLDADUA**

Alberdania, 2006  
M. A. Bridge, Michael  
Itz.: M. Larrañaga

Lehen mundu gerran soldadu hau, Thomas, ezerezaren pare sentiarazten dute nagusiek. Txikitako nekazari-giroa kontatzen du baita ere. Protagonista bakezale bihurtuko du gudak. Nobela antimilitarista.




**Zailtasun-maila:**  
**C1** ● ● ● ● ● ●

### **HAUTS BIHURTU ZINETEN**

Alberdania, 2005  
Juan Kruz Igerabide

Frankismoaren azken urteak eta ondorenak kontatzen ditu auzo txiki bateko mutiko herren batek: orduko egoera politiko, grebak, atentatuak, droga-kontuak, ihes egin beharra... Mutikoak badu lagun bat, hari esker ez dio buruak ere herren egingo. Adela maistra da lagun hori, aurrerakoa. Baina Marro ere hor dago, mutikoaren gaitz ororen errudun.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**MUTUAREN HITZAK**  
Susa, 2005  
Hasier Etxeberria

Hilketa itxura duen heriotza dago hasieran. Hori aitzakiatzat hartu eta Arruti ikertzailearen drama kontatzen digu. Bake bila doa Baztanera. Baina han ere bake gutxi. Hileta argituta duela uste duenean, bere hipotesia hankaz gora joaten zaio Arrutiri. Eta beste bide bat hartzen du ikerketak.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**ARBELAREN GAINEAN**  
Elkar, 2004  
Xabier Mendiguren

Autobiografikoa da neurri batean liburua, amaren aldeko familiarik tiraka, Itsasondotik. Itsasondo da protagonista liburuan, hango pertsonaia bitxiak, famatuak... hango industria (arbelak egitea tarteko)... Fikzioa ere tartekatu du egileak. Betiko Itsasondo badoa, edo aldatzen ari da.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**GAUZA TXIKIEN LIBURUA**  
Erein, 2004  
Pako Aristi

Bizitzaz, gaurko gizarteaz zer pentsatzen duen Aristik. Hori egiten du 63 testuren bidez: maitasuna, maitemina, musika, bere belaunaldiko jendearen bizitza-hautua, bakardadea, tele-zaborra... Gai asko jorratzen ditu, inkonformismotik batzuk, minetik beste batzuk, edo haserretik... irakurlea hausnartzen jartzeko.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**SUKAR USTELAREN URTEA**  
Txalaparta, 2004  
Edorta Jimenez

Garaiezina izan behar zuen Armadan sartu da Sebastian Zubileta gazte euskalduna. Maitasunetik ihesi doa, Ingalaterra konkistatzera. Itsasontzian bi etsai ditu, tifusa eta Inkisizioa. Inkisizioak gazteak gorde duen liburu misteriotso bat nahi du.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**EULIEN BAZKA**  
Susa, 2003  
Hasier Etxeberria

Gorpu bat aurkitu du txiki-txiki eginda Ertzaintzak. Arruti entomologoak, minbizia duenak, uste du bere emaztearena dela. Forenseei lagunduko die ikerketan.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### SOINUJOLEAREN SEMEA

Pamiela, 2003  
Bernardo Atxaga

Batez ere frankismoan girotutako nobela. Obaban jendea fusilatu zuten, eta Davidek jakingo du aita ibili zela fusilatzen. Gero, urteak aurrera, ETAn nahastua ikusiko du bere burua; maitasuna ezagutuko du, ihesa eta kartzela ere bai, eta deserrian, Stoneham-en, paradisua edo. San Frantziskora egindako bidaia batean ezagutuko du Mari Ann, erabakigarria izango dena David bere memoriak idazten hasteko.




Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### INESAREN BALADA

Elkar, 2002  
Hasier Etxeberria

Inesa Indazubikoak alde egin du etxetik, sorterrian ito egiten zen. Pellot kapitainarekin itsasoratu nahi du, abentura bila. Eta abenturak izango ditu, kortsario lapurtarrak eta dabilta tartean.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### BI BIHOTZ, HILOBI BAT

Erein, 2001  
Ramon Saizarbitoria

Senar-emazteen hika-mikak modu dibertigarrian edo kontaktuak. Ene, zenbaterako mesprezua dion Florak senarrari! Berak, Florak, hain konbentzionala izaki!



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### LAGUN IZOZTUA

Elkar, 2001  
Joseba Sarrionandia

Goio Ugarte Nikaraguan bizi da ilegalki, baina herritarren babesa du. Bat-batean "izoztu" egingo da: ez du inor ezagutzen, ezer gogoan, ez lekurik, ezer. Maribel postariak Ekuadorra eraman nahiko du Goio, han baita haren txikitako lagun bat, ea haren ondoan sendatzen den, baina bidaia zaila da..



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### AGUR, EUZKADI

Susa, 2000  
Juan Luis Zabala

Zabalak Lauaxeta idazle fusilatua berpiztuko du, Gernikan, eta bizimodu berrira ohitzeko, kazetari baten laguntza izango du. Euskadin zehar ibiliko dira: abertzaletasuna, euskara, heriotza, euskal idazleak... izango dituzte hizpide bi lagunok.




Zailtasun-maila:  
C1 ● ● ● ● ● ●

### GORDE NAZAZU LURPEAN

Erein, 2000  
Ramon Saizarbitoria

*Gudari zaharraren gerra galdua* kontakizunarekin hasten da liburua. Bertan Espainiako Gerra Zibilean parte hartu zuen gudari baten gorabeherak deskribatzen dira. *Rossettiren obsesioa*, maitasun arruntaren mugetatik harantzago doan amodio-obsesio bat kontaktzen du. Maitasuna zientzia legetatik at dagoen fenomeno dela, horixe da *Marcel Martinen aitatasun ukatua* kontakizunaren ardatza. *Bi bihotz, hilobi bat*-ek, berriz, bihotzak samin gehiago gorde ezin duenean, horiek kanporatzerakoan bikote harremanari egiten dion kalte neurrigabea du hizpide.




Zailtasun-maila:  
C1 ● ● ● ● ● ●

### BERANDU DA GELDITZEKO

Susa, 1999  
Unai Iturriaga

Mikel gazte baxu-jolea musu-truk bizi da Dionisosen etxean. Mikeli gehiegi gustatzen zaio edatea. Egun batez ezagun bat atxilotzen dute, Jokin, eta Mikelek Parisa alde egingo du Bilbotik. Parisen zaharrak berri.




Zailtasun-maila:  
C1 ● ● ● ● ● ●

### ARGIZARIAREN EGUNAK

Alberdania, 1998  
Anjel Lertxundi

Ekoiztetxe batean lan egiten du Michel-ek, telebistarako. Idazle freelance bat da eta lankide du Ada andregai. Eta Danel ere bai. Honek festa batera gonbidatuko du Michel, eta han ikusitako gertaera susmagarriak epaile baten esku jarriko ditu. Bi urte pasatuta gertatutako kontuez hausnartuko du Michelek psikiatrikoan. Han dago sartuta.




Zailtasun-maila:  
C1 ● ● ● ● ● ●

### GURE BARRIOA 1975

Elkar, 1998  
Xabier Mendiguren Elizegi

Idazleak 10 urte inguru izango zituen 1975ean. Orduko garaia gogoratzen ditu Mendiguren beasaindarrak: jolasak, eskola, neska-kontuak, giro politikoa...



Zailtasun-maila:  
C1 ● ● ● ● ● ●

### BIHOTZ BI

Erein, 1996  
Ramon Saizarbitoria

Senarrak hil egingo du emaztea, adarrak jarri dizkiolako. Bikote-harremanei buruzko istorioa, gizonaren ikuspegitik kontatua, nola harremana zapuzten duten txikikeriek. Emaztea-ekin nola gerra daraman. Eta egoera horretan, zentzudun bakarrenetakoa Samuel da, gudari zaharra, senarraren hizketa-laguna Hanbre sagardotegian.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**GALDU ARTE**  
Susa, 1996  
Juan Luis Zabala

Etxe-okupazioak, asanbladak, rock eta punk musika-emanaldiak, amodioa, drogak, polizia, manifestazioak... baina batez ere Azkoitiko gaztetxea da protagonista liburu honetan Nikoren eskutik, Xepe gaztearen eskutik, eta Pipiren eskutik. Pipi idazlea bera da. 1984-86 da urte-sasoia.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**NEREA ETA BOK**  
Txalaparta, 1994  
Laura Mintegi

Isabel literatura-irakaslea da Parisen. Nerea du ikasle, ETAKide preso bat. Irakaslea ama da, banandua; Nerea, gaztea. Nereak gutun batean literaturari buruzko ikuspegia azaltzen dio Isabeli, baina gutunak aurrera, Isabel bere bizitzaz hausnar-tzen hasiko da. Eta Nereaz maitemintzen? Nerea libre ateratzen denean egingo ote dio kasu Isabeli?



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**EZER BAINO LEHEN**  
Elkar, 1992  
Arantxa Iturbe


Ipuin-liburua: gizon-emakumeen arteko harremanak, tris-teak, pozgarriak... Gaur egungo bizimodua islatzen dute. Iro-nia darabil Iturbek. Umorea. Umore beltza batzuetan.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**BEHI EUSKALDUN BATEN MEMORIAK**  
Pamiela, 1991  
Bernardo Atxaga


Mo ez dago pozik behi izateaz, eta munduari erakutsi nahi dio ez dela Isabel bat baino gehiago dituen belarjale huts bat. Setatsu, bere barruko ahotsa lagun duela eta La Vache qui Rit behi menderakaitza ere lagun duela. Gerra zibilaren osteko Euskal Herrian sartuko gaitu, eta bizi den Balantzategi base-rriko sekretua zein den jakingo dugu, zein den Geneveva. Baina behiek ez ezik frankisten aldekoek ere jakingo dute zer egosten den Balantzategin.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

**AINHOARI GUTUNAK**  
Elkar, 1990  
Joseba Sarrionandia


Iheslaria etxe batean gordeko da. Hantxe dago Ainhoa txikia. Urteetara 28 gutun idatziko dizkio iheslariak Ainhoari: Chapli-nez, kurloiei buruz, Gulliverri buruz, edo Vietnamez, edo ger-lako haurrez...



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●

**HALTZAK BADU BIHOTZIK**  
Elkar, 1990  
Iñaki Mendiguren Bereziartu


Ikasle eta irakasle baten arteko maitasun istorio bati gorazarrre. Biak gizonezkoak dira. Maitasuna, erotismoa, zeloak, dibortzioa, herri-borroka, soldaduskaren kontrako jarrera,... Homosexualitatearen tabua hautsi eta arazoa hain gordin eta naturalki tratatzean, gizarteko itxura gordetze, eredu tradizional, molde zahar eta ortodoxia guztiak zabu eta itzulipurdika jartzen ditu Iñaki Mendigurenek.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●

**OBABAKOAK**  
Erein, 1988  
Bernardo Atxaga

Obaba lurraldeko bizilagunen istorio liluragarriak biltzen ditu Atxagak: irakasle batek gutunen bidez baino ezagutzen ez duen neskaekin izandako harremana, maistra gaztearen bakardadea, basoan galdutako haurren apaizak duen harremana, eskolako argazki bat tamainaz handitzean ikusten duenak nola aldatzen duen idazle baten bizitza... Istorio hauek lotuz, Euskal Herritik Hanburgora eramango gaitu, Amerikara... Baina, azken finean, literaturaren hausnarketa eta sintesia aurkezten digu; gure hizkuntza, gure kultura, gure literatura, oraindik bizirik dago.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●

**IRENE, TEMPO DI ADAGIO**  
Erein, 1987  
Pako Aristi


Laura, herriko emakume bat alargun geratzen da seme gazte batekin, eta bestalde Santos nekazariari berbera gertatzen zaio. Bakardadearen poderioz edo, azkenean biak ezkonduko dira, laster bi alaba izanik, Laura eta Marina. Ez dira gauzak, ordea, ondo joango Laura eta Santosen artean, munduko bi ikuspegi erabat desberdinak dituztelako. Honela, gurasoen gorrotoa, seme-alabek jasoko dute, familia erabat zatitua sortuz hasieratik.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●

**ATABALA ETA EURIA**  
Elkar, 1986  
Joseba Sarrionandia


11 ipuinez osatutako liburu honetan bada umerik izan ezin duen emakumearen fantasiarik, bada unikornio baten istorioa ere, edo inora ez doazen soldaduen istorioa, edo Arthur erregearen garaiko zaldunen istorioak, edo kartzela-kontuak...



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●

**BI ANAI**  
Erein, 1985  
Bernardo Atxaga

Bi anaietako batek, Danielek, badu zerbait, "buruan kanta ttiki bat besterik", besteengandik diferente egiten duen zerbait. Eta umezurtz geratzen direnean, Paulo anaia gazteak, hamabost urte, hartu behar du zaintzan, lotu behar du motzean herriaren ustezko harmoniak krak egingo ez badu. Tentsioak sortzen dira Carmen eta Teresa eta gainerako gizon-emazte zuzen eta korrekto eta mantzarik gabeekin. Tragedia da Atxagak azaltzen diguna, tragedia, narratzaileak txori, katagorri, suge edota antzara badira ere.




Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### KCAPPO, TEMPO DI TREMOLO

Erein, 1985  
Pako Aristi

Herri txiki batean bi mutiko hazten dira bi etxetan. Hazi ahala, jolaskide bihurtuko dira, eta eduki ere, biok batera edukiko dituzte neskekiko beren aurreneko maitasun eta sexu-harremanak. Jakina, halako herri txikiak estuegi dira sabelpeko kontuak gazteengan onartzeko, eta batak nahiz besteak arazo anitz izango du bere bizimodua zuzen ateratzeko.




Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### HAMASEIGARRENEAN, AIDANEZ

Erein, 1983  
Anjel Lertxundi

Jokoa ez da errenta, baina Domingori bost axola. Beti dabil apustuak egiten, gainera artekaria da. Emazteak sumatzen du azkenean zerbait larria gertatuko zaiola, are beti Korneliorekin baldin badabil.



Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### HIL ALA BIZI

Elkar, 1983  
Xabier Amuriza

Baserriko bizimodua, baina gogorra, ez idilikoa, Fidel Gaizto protagonistaren eskutik. Guztiaren aurkako errebeldia du Fidelek, animalien ganakoa salbu. Jon iloba "lasaiagoa" da.




Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### NARRAZIOAK

Elkar, 1983  
Joseba Sarrionandia

11 narrazio gehi Atxagaren epilogoak, Sarrionandiaz eta honen literaturaz. Narrazioetan denetik dago: 1. tren-geltoki batean norbait ikustean "nor ote da?" diogu: aukera bat baino gehiago dago. 2. Marinela etsitu batzuek kalterik gutxien eragingo dien aukera hartu beharko dute irla batera joanda. 3. Ginebra erregina ez da fidela: eta senarrak jakiten duenean? 4. Idazlea bere itzalarekin hizketan. 5. Hitz egiten ez duen 22 urteko Martin zergatik daramate belarzale batengana? 6. Werner Hebbel zaharregi liluratu da Loreleiz?...




Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### ELIZONDOKO ESKUTITZAK

Gero, 1981  
Gotzon Garate

Jon Bidart detektibea oportetara doa Amaiur herrira, eta bidean, Elizondon, Anton Herandorena laguna bisitatuko du. Gutxira, Errazun behar dutela esango diote Bidarti. Izarapean hildako bat aurkitu dutelako: Anton Herandorena adiskidea! Nork hil ote du? Zergatik?





Zailtasun-maila:  
C1 ●●●●●●

### HAUR BESOETAKOA

Erein, 1970  
Jon Mirande

Theresa neskatalak ez du gurasorik, eta osabak hartuko du bere ardurapean. Biak bidaia luze batean sartuko dira. Intzes-tuaren mamua dago, eskandalua... eta gizarte zurrun bat harreman horiekiko.




Zailtasun-maila:  
C2 ●●●●●●

### MARTUTENE

Erein, 2012  
Ramon Saizarbitoria

Martutene. Dadoa zenbait aldiz jaurti ondoren, bosta atera da: Julia, Martin, Pilar eta Abaitua dira lau kantoietako puntuak; erdikoak, Lynn. Julia itzultzailea da, Martin, idazlea; Pilar eta Abaitua medikuak. Berrito osatzeko (edo desegiteko) prozesuan dauden bi bikote. Horretan, neska amerikar bat agertzen da haien bizitzan; soziologoa da, Max Frischen eleberrri bateko protagonistaren izena du. Lynnek ez du nahi, baina aspalditik lokartuak zeuden harreman haien zimenduak astinduko dituzten erreakzioak abiaraziko ditu haiengan: alaitasuna, desira eta bizi berri bati ekiteko poza eta ilusioa.



Zailtasun-maila:  
C2 ●●●●●●

### ODOLAREN SUA

Alberdania, 2012  
Irene Némirovsky  
Itz.: J. Antonio Sarasola

Eleberrri hau garaiko argitaratzailearen paperen artean galduta zegoen eta XXI. mende honetan argitaratu da lehen aldiz. Kontakizun intimista eta hunkigarria da *Odolaren sua*. Baserri giroko Frantziako herri txiki batean gertatzen da dena, 30eko urteen hasieran. Silvio narratzaileak dirutza gastatu du munduan zeharkako bere ibilaldietan. Hirurogei urterekin eta familiaren kargarik gabe, patxada ederrean Frantziako txoko horretan giza kondizioaren behatzaile izatea tokatzen zaiola ematen du. Halako batean, ordea, patxada hori trakestu egi-ten da, herrian heriotza lazarri bat gertatzen baita.




Zailtasun-maila:  
C2 ●●●●●●

### GARBIKETA

Alberdania, 2011  
Sofi Oksanen  
Itz.: Mia Rissanen eta Joseba Osa

1992an gaude eta Estoniak independentzia eskuratu berri du. Hango nekazari paraje isolatu batean neska bat agertu da; Aliide Truu amonaren baratzean datza akituta. Zara du izena neskak eta hogeita hiru urte ditu. Bahitzaileen (emakume-trafikatzaileen) atzaparretatik ihes eginez iritsi da amonaren etxaurrera. Honek bere etxean jaso du eta poliki-poliki bi emakumeen arteko solasak neskaren iragan gertura ekarriko ditu. Alemaniatik zetorren ihesean. Eta solasak Zararen familiaren inguruko drama gogorretan barneratuko gaitu. Kapitulu laburrak eta estilo zuzena darabil idazleak. Oso errealista.



Zailtasun-maila:  
C2 ●●●●●●

### SUITE FRANTSESA

Alberdania, 2011  
Irene Némirovsky  
Itz.: Mikel Garmendia eta Jose Antonio Sarasola

Ohiz kanpoko nobela da *Suite frantsesa*, ohiz kanpoko egoeran idatzia. Maisuki erakusten du XX. mende erdi aldeko Europaren tragedia. Nobelak alderdi autobiografiko ukaezina du, eta alemaniarren Parisen sartzeko bezperetan hasten da. Lehen bonbak lehertzen direlarik, milaka familia iriteten da bideetara. Némirovskyk hor erakusten du maisutasuna, giro hori deskribatzen. Eszenak dira hunkigarriak batzuk, isekagarriak beste batzuk, bidean bata bestearen atzetik irakurtzen ditugunak. Alemanek Frantzia hartu ahala behera dator ordu arte nagusi zen ordena.



Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

### **AUTOPSIARAKO FROGAK**

Susa, 2010  
Koldo Izagirre

Euskararen beraren eta euskararen egoeraren inguruan duen iritzia ematen du Izagirrek garai eta jatorri askotako adierazpen, testu, pasadizo eta dokumentuak gogora ekarriz eta komentatuz. Izenbururik gabeko 11 ataletan dago banatua liburua, eta atal bakoitza osatzen duten testuak autonomoak dira, nahiz eta denak ardatz beraren ingurukoak diren.




Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

### **FIKZIOAREN IZTERRAK**

Susa, 2010  
Ur Apalategi

Zazpi ipuin ditu liburuak eta fikziozkoak izan arren, errealitate hurbilaren ispilu dirdiratsuak dira. Bikotea batetik, idazletza bestetik, horra "Fikzioaren izterrak" ipuin liburuan obsesiboki txirikordatzen diren hari nagusiak. Maitasun konpartitua, naziotasun zoriontsua eta arrakasta literarioa benetakoak al dira?, edo geure buruak zigortzeko sortzen ditugun kimera eskuraezinak? Serioski irri egiteko kontakizunak dira, baita frustraturik gozatzeokoak ere, edo haserrez baketzeokoak... hori posible baldin bada.




Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

### **MOROAK GARA BEHELAINO ARTEAN?**

Pamiela, 2010  
Joseba Sarrionandia

Joseba Sarrionandiaren liburu ezberdina duzu Moroak gara behelaino artean? hau. Bereber hizkuntzaren lehenetako gramatika egilea den Pedro Hilarion Sarrionandiak piztutako jakin-minetik abiatuz, liburua saio-lan anitza eta sendoa da. Bertan aurkituko dituzu pertsonaia historikoak eta gerla kolonialeri buruzko gogoetak, aitormen pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko teoriak...etab.



Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

### **NOR BERE BIDEAN : ORBETARRAK III**

Elkar, 2010  
Joan Mari Irigoien

Damaso eta Gabino, orbetarren sagako azken ordezkariak, txikitatik norgehiagoka isil eta itsuan bizi izan dira. Izateko, sentitzeko eta pentsatzeko bi era kontrajarri hezur-mamitzen dituzte: Damaso arrazionala, eszeptikoa, munduaren minek mindua eta jendailak nardatua, engainu eta lilura besterik ez diren ametsak arbuizatzen dituena, dela erlijioa, dela aberria; Gabino, berriz, sentikor eta sentibera, xaloa eta ameslaria, izadia eta izakiak pasioz maite dituena, bere kontraesan guzti-ekin haraindi baten sinesmena gorde eta honaindiko Euskal Herria aldeztu nahi lukeena.



Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

### **AURPEGIRIK GABEKO HILTAILEAK**

Erein, 2009  
Henning Mankell  
Itz.: Juan Mari Mendizabal

Kurt Wallander ez da bere bizitzako unerik gozoena pasatzen ari: familia harremanak gaiztotu egin zaizkio, gehiegi edaten du, lo gutxi egiten, zabartzen ari da itxuraren aldetik... Hala eta guztiz ere, Lenarp aiton-amona baserritarren hilketaren ikerketa bere gain hartzen du. Agurea modurik baldarrenean izan da torturatua hil arte; amona, berriz, arnasarik gabe uzteraino ito dute; azken hatsa bota baino lehen, ordea, kanpotarra hitza ezpaineratu zaio. Arrazismoa pil-pilean dagoen gizarte batean egin beharko du lan Wallander komisarioak.




Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

**EZER GABE HOBE**

Susa, 2009  
Itxaro Borda

Nobelako protagonista europarra da, izentzat Sigma eman zaion baionarra. Bi frontera igaro beharko ditu klandestinioki: lehenbizikoa Londreseko bidean, afrikar bati laguntzen; bigarrena Kaliforniara bidean, Mexikoko adiskide batzuekin iparralderantz doala.

Bizi dugun garai ekonomiko bortitz, lapur eta zanpatzailearen lekukoa da eleberri sozial eta politiko hau: salaketa eta aldarrikapena aldi berean.




Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

**HARAGIAREN GAUAK ETA EGUNAK : ORBETARRAK II**

Elkar, 2009  
Joan Mari Irigoien

Egun hartan ere halaxe zihoan Nazario Orbe, irria eta besoak zabal, korrika zetozkion seme-alabak besarkatzeko prest; besteetan ez bezala, ordea, aitagandik bizpahiru urratsera gelditu zen Teofilo Maria erabakitasun handiz, baita atzetik beste bost anai-arrebak ere, bata bestearen ondotik; gero, hamahiru urteko umeak honela esan zion aitari, gizonaren plantak eginez: –Berri txarrak.




Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

**IA DENAREN HISTORIA LABUR BAT**

Elhuyar, 2009  
Hill Bryson

Bill Bryson idazle ospetsua da, baina ez zientzia-dibulgazioaren arloan, baizik eta bidaietako liburu arrakastatsuak idatzi dituelako. Liburu hau zientziar idazten duen lehena da. Abiapuntua, Brysonek berak betidanik izan dituen zientziari buruzko galderen multzoa da. Galdera horiei erantzuteko, ohiko dibulgazio-liburuen estilotik urrundu, eta oso hizkera apalean landu zuen testua. 2004an, liburuak Aventis saria irabazi zuen, zientzia-dibulgazioko liburuen esparruan dagoen saririk handiena.



Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

**BESTEA DA MUNDUA : ORBETARRAK I**

Elkar, 2008  
Joan Mari Irigoien

Hutsetik hasi eta handiki izatera iritsi da Nazario Orbe, XIX. eta XX. mendeen arteko industrializazio-prozesuan, lanaren lanez eta zapaldu beharrekoak zapalduz. Ez da txikiagoa haren emazte Regina Aldasororen epopeia, erdaraz ez jakitetik Madrilgo Villalbako markesen jauregiko konfiantzazko nes-kame izateraino.




Zailtasun-maila:  
**C2●●●●●●**

**EGUNSENTIAREN ESKU IZOZTUAK**

Pamiela, 2008  
Xabier Lete

Gure poeta handienetako baten poema-liburua. Bizi esperientzietatik ondu eta idatzitakoa, iragan ederrarekiko miresmena, maitasunaren gauzaguneak, xamurtasuna, oinazea, heriotza eta berraurkikuntzaren ametsa elkarri lotuz. Unibertsalak diren sentipen, arrangura eta eremuak, poesiaren gailurrean. Bere goi arnaseko poetika hizkuntza landu eta propioan isuria da eta, era berean ulerterrazean. Mugarri eta erreferente gisa geldituko den liburua.



Zailtasun-maila:  
C2●●●●●●

**GIZONA ILUNPEAN**  
Alberdania, 2007  
Paul Auster  
Itz.: Oskar Arana


Erretiroa hartutako liburu-kritikari bat, hirurogeita hamabi urtekoa; berrogeita zazpi urteko bere alabarekin eta hogeita hiru urteko bilobarekin bizi da. Emaztea iaz hil zitzaion. Alabaren gizonak duela bost urte utzi zuen. Bilobaren mutil-laguna hil egin zuten. Samina dago etxe horretan, arima zaurituak, eta gizona gauero-gauero etzaten da ilunpean bere iraganari buruz ez pentsatzeko ahaleginak eginez, beste mundu batzuei buruzko istorioak asmatzen.



Zailtasun-maila:  
C2●●●●●●

**HUMBOLDT, HIZKUNTZA ETA PENSAMENDUA**  
Udako Euskal Unibertsitatea, 2007  
Joxe Azurmendi


Liburu hau trilogia bateko lehena da, eta oinarria hurrengo bientzat: Volksgeist -Herri Gogoia Ilustraziotik nazismora eta Espainiaren arimaz. Oinarri-oinarrian hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko harremanaren auzia dago -hortik jalgi da herri bat oroz gain hizkuntza edo kultura bat delako ideia. Horixe da lehen liburuki honen gaia, arazoa filosofian eta bereziki Humboldt-en obran aztertuz. Hizkuntza eta pentsamendua Humboldt-en aurretik eta gaur egungo filosofian, antropologian eta zientzia kognitiboetan ere begiratzen dira.



Zailtasun-maila:  
C2●●●●●●

**KONPAINIA NOBLEAN**  
Alberdania, 2004  
Anjel Lertxundi


Mosaiko baten tankeran egituratuta dago liburua, piezen eta gaien eta tonuen ugaritasunak harrizko zaitu. Liburu honek nabigatzen jarriko zaitu euskal kulturaren intranetean zu konurtatu ere egin gabe. Literatur arketipoen eguneratze erabat modernoa aurkezten dizu, sormen lana ardatz duela. Lagun ahantzezinen konpainia noblean jarriko zaitu.



Zailtasun-maila:  
C2●●●●●●

**KURRIN-KURRIN VITAE : MAISU BATEN IKARAK ETA OSTIKADAK**  
Alberdania, 2004  
Joxerra Garzia


"Liburu honetan aurkituko duzuna ez da mundua, nik neure diskurtsoaz eraiki dudan mundutxo baizik. Eta, nire mundutxo horretan sartzen bazara, hor ezagutuko dituzu nire ametsak eta lainezak, damuak eta kamuak, merituak eta delituak, ikarak eta ostikadak... Curriculum seniorik ez, Kurrin-kurruna baizik". Joxerra Garzia



Zailtasun-maila:  
C2●●●●●●

**OTTO PETTE : HILEAN BIZIAN BEZALA**  
Alberdania, 1994  
Anjel Lertxundi

Zazpi ataletan banaturik dago Erdi Aroan giroturiko nobela berritzaile arrakastatsu hau. Otto Pette landetxe batean bizi da bakar-bakarrik, oroitzapenak bidelagun dituela. Baina arrotz bat hurbildu da etxera, eta kanpotarra etxean jaun eta jabe bihurtu da. Bien arteko elkarrizketa da eleberrri osoa, eta Otto Pette arrotza nor den asmatzen ahaleginduko da harekin duen elkarrizketa luze horretan, arrotzak ematen dizkion arrastoei jarraiki, Otto Pettek bere bizitzan zehar ezaguturiko hainbat pertsonaiaren azalean agertuko baitzaio arrotza: Errondal, Aba Yakue, Battis Tobera...



**Zailtasun-maila:**  
**C2●●●●●●**

**EMEA**  
Elkar, 1985  
Xabier Amuriza


Lea Bordalegik, Bordalegi baserriko alabak, bi kartzela-zigor jaso ditu hilketa banagatik: guztira 60 urte, eta 20 milioi pezetako kalte-ordaina. Bere abokatua datorkio espetxera. Nola heldu da honaino Lea, bere aldeko abokaturik ere nahi ez zuen Lea? Zergatik hil zituen Leak bi gizonak Bordalegin?



**Zailtasun-maila:**  
**C2●●●●●●**

**ETIOPIA**  
Erein, 1983  
Bernardo Atxaga

Utopia eta Etiopia hitzekin egindako hitz-jokoaren emaitza da poema-liburu hau. Utopia ezin du jendeak lortu, Etiopiar heldu bai. Liburua bidaia moduko bat da, infernura jaitea bezala. Gizakiak ideia utopikoak eskuratu nahian dabil, baina azkenean Etiopiarekin konformatu behar du.



**Zailtasun-maila:**  
**C2●●●●●●**

**SANTA KRUZ APAIZA**  
Erein, 1985 (1929)  
Nikolas Ormaetxea, Orix

Santa Kruz apaizaren heriotzaren ondoren, Nikolas Ormaetxeak aspalditik zuen asmoa bete zuen: haren bizitza euskaraz argitaratzea. Tolosako lagun baten laguntzari esker, apaizari berari hitza eman eta Karlistada-garaian elizgizona nola aritu zen azalduko du Orixek gipuzkeraz idatzitako liburu honetan.

---

# HABE

Hekuen Alfabetatze eta Berreuskaltuntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

